



SormenDigitala

Euskal curriculumuma: egungo esperientziak eta etorkizuneko aukerak

“Sormena eta euskal kultura ikastetxeetara bideratzeko egitasmoa: *Sormen digitala*”



Donostian, 2022ko ekainaren 29an

Miren Basurto eta Miren Oteiza (EIBZko irakasleak)



Nafarroako Hezkuntza Departamentuko Euskara Atalaren eta [EIBZ](#)ren (Euskararen Irakaskuntzarako Balibide Zentroa) arteko lan-egitasmoa da.

2020-2021 7 ikastetxe	2021-22 12 ikastetxe	2022-23 22 ikastetxe
---------------------------------	--------------------------------	--------------------------------



Sormen digitalarekin, **D ereduko DBH**ko gazteen sormena eta irudimena landu nahi ditugu eta euskal kulturaren transmisioari lekua eman, kultura ikasleengana hurbiltzeko.

DBHko **2., 3.** edo **4.** mailako ikasleendako egina da.

Bi modutan lantzen da: **hautazko irakasgai** moduan edota **diziplinarteko proiektu** gisa.



SormenDigitala

-DIZIPLINARTEKOotasunari garrantzia ematen diogu.

-Guk bost irakasgai hauek aurreikusi ditugu: EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA, PLASTIKA, MUSIKA, GORPUTZ HEZKUNTZA eta TEKNOLOGIA.



Sormen digitalaren **helburua bikoitza** da:

- a) Euskal kulturaren transmisioa lantzea.

- b) Ikasleen irudimena eta sormen artistikoa piztea, sustatzea, eta garatzea.



Horretaz gain, **zeharkako helburu** bat dugu, *helburu transbertsal* bat.

Hau guztia **euskaraz egin dezatela** nahi dugu, euskara erabil dezatela pentsatzeko, sortzeko, elkarrekin komunikatzeko...



SormenDigitala

Asmoa: euskal kulturatik abiatzea, ikasleek sormena landu dezaten, euskal kultura sortzeko eta, ondorioz, kontsumitzeko, bizitzeko, esperimentatzeko...



Hau da:

Gazteen arreta erakarri nahi dugu, haiek euskal kulturako erreferente batzuk ezagut ditzaten, horien sormen-lanekin **esperimenta dezaten**, eta ondoren **birsortu, eraldatu** edo erabat **iraul ditzaten**.



Nola gauzaten da hau guztia?

Zer baliabide/tresna behar ditugu egitasmoa aurrera eramateko?

- Tailerrak
- Baliabide digitalak
- Sortzaileen bisitak
- Formakuntza



Egitasmo honetarako **lau tailer** (ikasmateriala) proposatzen ditugu:

- Ezpainzapia
- Handia eta maskarak
- Frontoia
- Txalaparta

(EIBZko webgunean ikusgai <https://eibz.educacion.navarra.es/web1/sormen-digitala/>)



Lau tailer hauen bidez...

-Hainbat produktu edo adierazpen artistiko desberdin **sortzeko aukera** izanen dute ikasleek.

-Arteaz duten **ikuspegia zabaltzeko aukera** ere ematen diegu ikasleei.



Tailerretako bakoitzean **lau multzotan** (lengoaietan) sailkatu ditugu ikasleek sortuko dituzten adierazpen artistikoak:

- HITZ**en bidez
- IRUDI**en bidez
- GORPUTZA**ren bidez
- MUSIKA**ren bidez



Lau tailer hauek **bi ezaugarri** amankomun dituzte:

- Emozioa eta sentimendua.
- Gure kultura eta gure kultur ondarea ezagutzea.



Tailer hauetarako sortutako materiala 5 sortzailerekin kontrastatu dugu:

Oskar Alegria (zinemagilea)

Ion Celestino (musikaria)

Ines Osinaga (musikaria)

Leire Urbeltz (ilustratzailea)

Oier Zuñiga (dramaturgoa)



Tailerretan...

- **Izen handiko euskal artista batzuk** ageri dira: Josean Artze, Mikel Laboa, Jorge Oteiza, Gabriel Aresti...
- **Gaur egun kulturean "egosten" ari dena** ere ageri da: Leire Urbeltz, Dora Salazar, Sonakay, En Tol Sarmiento, Kirmen Uribe...

Baina, argi utzi nahi dugu ez dugula inolako zerrenda edo kanonik sortu nahi izan.



Sortzaile ezagun horiez gain, nahi dugu:

- **Tokian tokikoari, hurbilekoari** ere (auzokoa, herrikoa) balioa ematea, ikusgarritasuna ematea. Ohiko zerrenda edota zirkuituetan (horren) ezagunak ez direnak ere balioestea.



Aldizkari digitala

Urtean zehar ikasleek egin dituzten sormen-lanekin, ikasturtearen amaieran eta egitasmoari bukaera emateko, aldizkari digital bat egiten dute: elkarrizketak, bideo-poemak, abestiak, esketxak, koreografiak, argazkiak...



Baliabide digitalak

-**Editoreak** (aldizkarira igotzeko modukoak izan behar baitute sormen-lanek)

-**Aldizkaria** bera

Sortzaileen bisitak

Sortzaileen bi bisita izaten dituzte:

- Oskar Alegria
- Ion Celestino
- Ines Osinaga
- Leire Urbeltz
- Oier Zuñiga

Formakuntza

Gaiak:

- Sormena zer den
- Sormena nola landu
- Begirada aldaketa
- Euskal kulturaren transmisioaren beharra
- Pentsamendu errutinak zer diren eta zertarako erabili
- Egile eskubideak eta erabilera-baimenak...

Laburbilduz,



Sormen**d**igitala

“Sormen Digitala. Bi hitz. Izen bat lehena eta adjektiboa bertzea” (Oskar Alegria)

Sormena landu

digitala aldizkaria



SormenDigitala

Ikasleen sormen-lanak

EIBZko webgunean ikusgai

<https://eibz.educacion.navarra.es/web1/sormen-digitala/>

Mila esker

